

# OGI GOGORRARI HAGIN ZORROTZAK

Doinua: Zortziko Zaharra Hegoatik Iparrera...

- 1.- *Ogi gogor asko dago, zoritxarrez Euskadin  
Ogi gogor bihurtu da, horrenbeste euskal min.  
Hagintzarrak zorroztea, komeniko da arin  
Oraindik jan daitekena, erabat gal ez dadin.*
- 2.- *Ogi hutsez ez da bizi, gizona— dion hura.  
Behin da berriz etortzen zait, gai honekin burura.  
Basamortu batek berez, dakar gogora ura.  
Gizakiak horrelaxe, berea du kultura.*
- 3.- *Irauteko zailtasunez, bizi zaigu euskera,  
Euskaldunok saia behar, hizkuntzari eustera.  
Ogi gogor honek bide, bat du nire uster.  
Dakigunok erabili, besteek ikastera!!!*
- 4.- *Hizkuntzaren arazoak, badauka hainbat traba.  
Herri baten arimarik, ezin albora laga.  
Egun senti bihur dadin, halako batez gaba...  
Denok gogor joka behar, hau gertatuko bada.*
- 5.- *Ekologi arazoa, ez da ogi biguna.  
Zientifiko mundutarrak, kezkatu dizkiguna.  
Kutsaduran erreinoa, nagusitu zaiguna,  
Apenas den atsegina, gure etorkizuna.*
- 6.- *Hainbat lagun lanik gabe, ez dute lan erreza.  
Non aurkitu bizitzeko, behar duten babesa?  
Mixeria gainditutzen, izaten da nekeza.  
Ogi gogor gogorrena, ogi gogorrik eza.*
- 7.- *Krisiaren aitzakia, oso garbi ez dago.  
Ez al gaude tranpa eta, gezurraren esklabo.  
Behartsuak pobretutzen, ari garela nago.  
Aberatsak berriz geroz, eta aberatsago.*
- 8.- *Pakearen hitza ere, ogi gogorra dugu.  
Hilerriko pakerikan, nork du hemen helburu?  
Askatasun ta justiziz, nahi genuke seguru.  
Hori ezin lortuz gabiltz, gogor gudu ta gudu.*
- 9.- *Indartsuek beren alde, antolatu legeak.  
Hortarako ohi ditugu, bizkor eta trebeak.  
Loturazko edukiak, nahiz itxura libreak.  
Bost axola gizaki ta, herri eskubideak.*
- 10.- *Hainbat ogi gogorrekin, nor daiteke gaur poztu?  
Baina gogo beroz jarrai, ez etsipenez hoztu.  
Arantzezko baratz hauxe, behingoz dadin larrostu.  
Andre gizon neska mutil, hortz haginak zorrotzu.*

---

Xanti Zabala

«LEXO»